

## LEHIAKETAREN DESKRIBAPENA

«**HITZ-ERDIKO KONTAKETAK**» lehiaketa ZirtZart Basaurik —Basauriko Udalaren Gazteria Ataleko programak— antolatzen du, Kultur Basauri udal erakundearekin lankidetzan (aurrerantzean, «erakundea») eta Geuria Hego Uribeko herri komunikabidearen eta Elkar, Euskal Kulturgintzaren laguntzarekin. Xedea da **idazle talentudunak aurkitzea**, eta **12-35 urte bitarteko gazteei zuzendua** dago.

Guztira, **hiru deialdi** ditu Lehiaketak:

- **Lehenengo deialdia:** 2019ko urtarrilaren 14tik martxoaren 14ra.
- **Bigarrena:** 2019ko apirilaren 15etik ekainaren 15era.
- **Hirugarrena:** 2019ko irailaren 16tik azaroaren 16ra.

**Deialdi bakoitzean bi kontakizun sarituko dira: “Kontakizun onena” eta “Elkar saria”** (azken honetan 12-17 urte bitartekoen proposamenak baino ez dira aintzat hartuko).

Parte hartu nahi dutenek «**mikrokontakizun**» **bat idatzi beharko dute, gehienez ere, ehun hitzekin**. Antolatzaileek hasierako esaldia emango dute, eta hortik abiatu beharko dira lanak. Parte-hartzaile bakoitzak hautatuko du bere kontakizunaren gaia. **Bakar-bakarrik onartuko dira euskaraz idatzitako «mikrokontakizunak»**.

## PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

12-35 urte bitarteko gazte orok du parte hartzeko aukera, EAEn bizi ala ez, eta nazionalitatea edozein dutela ere.

Ezingo dute Lehiaketan parte hartu datu okerrak, osatu gabeak edota irakurtezinak ematen dituztenek. Beraz, emandako datuak egiazkoak izan beharko dute. Ezingo da goitizenik baliatu Lehiaketan parte hartzeko.

## BALDINTZAK

- Lehiaketaren antolatzaileek esaldi bat proposatuko dute, eta parte-hartzaileek esaldi hori osatu beharko dute, eta «mikrokontakizuna» osatu.
- «Mikrokontakizunek», gehienez ere, ehun (100) hitz izango dituzte (hasierako esaldia zenbatu gabe). Behin idatzita, parte-hartzaileek «mikrokontakizuna» bidali beharko dute, zerbitzuaren webguneko «HITZ-ERDIKO KONTAKETAK» fitxan dagoen orriaren bitartez (<https://zirtzart.basauri.eus>); horrekin batera, nahitaez bete beharreko eremuak ere bete beharko dituzte.
- Aipatutako orrian datuak ematearekin batera, parte-hartzaileek onartu egingo dute datuak babesteko antolatzaileen politika (beherago jasota dator).
- «Mikrokontakizuna» euskaraz idatzita egon beharko da (ez da beste edozein hizkuntzatan dagoenik onartuko); jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan beharko du
- Ez da onartuko epez kanpo bidalitako «mikrokontakizunik» edota, oro har, Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen ez dituenik.
- Hiruhileko bakoitzeko «mikrokontakizun» **“ONENA”**-ren azken esaldia izango da hurrengo hiruhilekokoan hasierakoa. Epaimahaiak aurreko «mikrokontakizun» **“ONENA”**-ren azken esaldia ez ezik, kontakizunaren hariaren jarraipena ere izango du kontuan.

- Egileek beren izen-abizenak eman beharko dituzte, eta nahi beste «mikrokontakizun» aurkeztu ahal izango dituzte.
- Parte-hartzaileak izango dira «mikrokontakizunaren» jatorrizko egiletzaren erantzuleak antolatzaileen aurrean: haiena izango da erantzukizun osoa. Beraz, antolatzaileei ez diete kalterik eragingo, zentzu horretan, hirugarrenek egin ditzaketen erreklamazioek (ohoreari, intimitateari, irain eta kalumniei, irudi-eskubideari edo iraingarriak edota lizunak izan daitezkeen adierazpenei dagozkienak barne).
- Parte-hartzaileek doan lagako dizkiete antolatzaileei idatziak kopiatzeko, banatzeko, eraldatzeko eta iragartzeko eskubide editorialak, bai eta testua (osorik ala zati bat) edozein euskarritan, mundu guztiarentzat eta legeek ahalbidetutako gehienezko epean zehar merkaturatzeko beharrezkoak diren beste eskubideak.
- Epaimahaiak baztertu ahal izango ditu hirugarrenen intimitatearen, ohorearen eta irudiaren aurka doazen «mikrokontakizunak»; aipamen arrazistak, sexistak edota diskriminatzaileak dituztenak; iruzkin lizunak, iraingarriak edota hirugarrenen duintasunaren zein moralaren aurkakoak; edota ordena publikoaren aurkakoak.

## **SARIAK**

«HITZ-ERDIKO KONTAKETAK» lehiaketan honako sari hauek banatuko dira:

**Deialdi bakoitzeko irabazleak honako sari hau jasoko du:**

- **Kontakizun onena: BERREHUN EUROko (200 €) BONUSA jasoko du.**
- **Elkar Saria: HIRUROGEITA HAMABOST EUROko (75 €) BONUSA jasoko du.**

**Honekin batera, deialdi bakoitzean sarituriko bi «mikrokontakizunak» Geuria aldizkarian (Hego Uribeko Herri Komunikabidea) argitaratuko dira.**

Deialdietako bakoitzean, antolatzaileen arteko batzuek osatutako epaimahaiak kontakizun irabazlea eta horren hiru ordezkotako hautatuko ditu kategoria bakoitzeko.

Gero, antolatzaileak irabazleekin jarriko dira harremanetan, parte-hartze orrian jasotako telefono-zenbakian, lehiaketa irabazi dutela jakinarazteko. Ekoizpen-beharrizanak direla eta, lehiaketan parte hartzeko hurrengo asteko astelehenaren 14:00ak baino lehen jarri beharko dira harremanetan irabazleekin. Bestela, epaimahaiak hautatutako ordezkotako batengana joko da, eta jatorrizko irabazleek ezingo dute saririk eskuratu.

Saria ezingo da trukatu, aldatu, beste batekin konpentsatu edota hirugarren bati lagatu, ez bada antolatzaileek eta irabazleak hala adostu, eta idatziz jasota uzten dutela. Saria jasotzen dutenek, bestalde, indarreko araudi fiskaletik erator litezkeen zergak ordaindu beharko dituzte. Jasotako bonuak, Elkar Euskal Kulturgintza S.A. erakundearen kultura produktutan erabiliko dira.

Epaimahaiaren erabaki oro ezeztazina izango da. Gainera, saria eman gabe utzi ahalko du epaimahaiak, bidalitako «mikrokontakizunen» arteko batek ere ez baleuka behar besteko kalitatea.

Saria jasotzen dutenek honako datu hauek eman beharko dituzte: izen-abizenak; NANa, pasaporte edota bizileku-txartela; helbidea; eta harremanetarako telefono-zenbakia. Joko da datu horiek ematen dituztenek berriaz onartzen dutela datuak babesteko beherago jasotako politika.

## **OINARRIAK ONARTZEA**

Parte-hartzaileak berriaz onartzen du Lehiaketa honetako OINARRI guzti-guztiak betetzea.

OINARRIetako baten bat betetzen ez duena Lehiaketatik kanporatua izango da.

Antolatzaileek, behar bezalako argudioak emanez gero, OINARRI hauek aldatu ahal izango dituzte Lehiaketa hasi eta gero ere.

Lehiaketa honen OINARRIAK, berau indarrean dagoen bitartean eskuratu ahal izango dira ZirtZart Basauriren webgunean (<https://zirtzart.basauri.eus>) eta Basauriko Udalaren webgunean.

### **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betetzeko —non datuak jasotzerakoan dagoen informazio-eskubidea arautzen baita—, zera adierazten dugu:

- Hemen eta beste komunikazio batzuetan emandako izaera pertsonaleko datuak **ZirtZart Basauriren** ardurapeko fitxategien bitartez kudeatuko dira.
- Xedea da eskatutako zerbitzua egokiro ematen dela kudeatzea. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei lagako (legeak baimendutako lagapenak izan ezik).
- Hemen eta beste komunikazio batzuetan eskatutako datuak derrigorrez eman beharko dira, zerbitzua eman ahal izateko. Izan ere, eskatutako datuak egokiak eta beharrezkoak dira, eta ez dira gehiegizkoak.
- Eskatutako datuak eman ezean, ezingo da parte hartu.
- Era berean, datuetara sartzeko, datuak aldatzeko, bertan behera uzteko edota datuei aurka egiteko eskubidea egikaritu ahalko da ZirtZart Basauriren aurrean (haiek baitira fitxategiaren arduradunak), 15/1999 Legean ezarritakoaren arabera. **Aipatutako eskubideak egikaritu ahal izateko, honako hauetara jo beharko da: [zirtzart@basauri.eus](mailto:zirtzart@basauri.eus), Gazteentzako Informazio Bulegoa (Basozelai 11, Basozelai Gizarte Etxea). 944 666 400 – 944 666 430**

### **ARGIBIDE GEHIAGORAKO:**

Basauriko Udala – Zirt Zart Gazte Bulegoa

-Tel.: 944 666 430

-Emaila: [zirtzart@basauri.eus](mailto:zirtzart@basauri.eus)

-Web orria: [zirtzart.basauri.eus](http://zirtzart.basauri.eus)

-Sare sozialak:

- Facebook: [facebook.com/zirtzartbasauri](https://www.facebook.com/zirtzartbasauri)

-Twitter: [@zirtzartbasauri](https://twitter.com/zirtzartbasauri)